

ASTEAZKENA

2019/01/23

7. urtea, 993. zenbakia

107,6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

Tolosako Iurreamendi egoitza, foru aldundiaren eskuetara

Tolosako azken ez ohiko osoko bilkuran Iurreamendi egoitza Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kabia erakundera eskualdatzea onartu zen; apirilean izango da aldaketa eta pertsonala eta materiala ez dira aldatuko // 2



ESKUBALOIA

TOLOSAKO TALDEA, SENDO

Tolosa CF Eskubaloi taldea bide onetik ari da; denboraldi erdia pasa denean saiklapeneko bigarren postuan dago, baina Estanis Arsuaga kapitainak eta gainontzeko jokalariek argi dute lanean jarraitu behar dutela // 7

IMANOL ESNAOLA

Neguak kultur ekitaldi sorta zabala utziko du Alegian

Alegiako Udalak Neguko Kultur Egitaraua prestatu du; apirilaren 21a arte luzatuko dira ekitaldiak eta horietan lehena etziko Ruper Ordorikaren kontzertua izango da // 5



San Juan eskolako Kazakhstan herrialdeari buruzko erakusketa. ENERITZ MAIZ

Etxebizitzaren arazoari heldu, eta hitzaldi ziklo bat antolatu dute

Ikaztegietako Gazte Taldeak 'Etxebizitza Bizimodu' antolatu du; ostiralean Oretako etxebizitza komunitarioa izango dute hizketagai // 6



Audi A1 Sportback berria.
Epic Mode On.

Autowag Tolosa
Usabal industrialdea, z/g
20400 Tolosa
943 67 35 81

Audi A1 Sportback 30 TFSI 85 kw (116 CV) 6 vel. berria. Karbono dioxido igorpena (g/km): 108tik 111ra. Kontsumoa (l/100km): 4,8tik 4,9ra.





Ezohiko osoko bilkuran, gobernua osatzen duten alderdiko kideek hitzarmena onartu zuten unea. TOLOSAKO UDALA

Iurreamendi egoitzaren kudeaketa eskualdatzea onartu du udalak

Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku geratuko da zentroa, apiriletik aurrera. Gobernuko ordezkarien baiezkotoekin eta oposizioaren abstentzioarekin onartu da erabakia ez ohiko osoko bilkuran

Josu Artutxa Dorronsoro

Pasa den ostegunean, hilak 17, ezohiko osoko bilkura ospatu zen Tolosako udaletxean. Iurreamendi zaharren egoitzaren inguruko bi puntuk osatzen zuten eguneko gai zerrenda.

Hain zuzen ere, zentroaren kudeaketaren eskualdatzeko hitzarmena onartu ala ez erabaki behar zuten udaleko alderdiek. Azkenean, EAJ eta PSE-EE alderdiek osatzen duten gobernuko kideen baiezkotoekin eta EH Bilduko ordezkarien abstentzioarekin onartu zen hitzarmena. Iurreamendi zaharren egoitzaren kudeaketa

beraz, udalarena izatetik, Kabia erakundera pasako da, hau da, Gipuzkoako Foru Aldundira, datorren apiriletik aurrera.

BI ATAL

Aldaketa honen guztiaren oinarrian Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoa dago eta bertan bi atal bereizten dira.

Batetik, lehen mailako arretako gizarte zerbitzuak daude, udal eskumenekoak direnak. Bestetik, berriz, bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuak daude, foru aldundiaren esku daudenak.

Azken horien barruan sartzen

da Iurreamendiko egoitzaren kasua. Zerbitzu horiek, ordea, lehen ez zeuden %100ean udalaren esku, horien finantzaketak foru aldundiarekin batera bideratzen zirelako. Apiriletik aurrera, baina, finantziario aldetik eta kudeaketa aldetik %100ean egingo da zerbitzuen banaketa.

Legeak, foru aldundien esku uzten ditu adinduen egoitzen gisako zerbitzuak, eta kasu batzuetan, legeak ezarritako eskumen banaketaren aurretik, jada udalen edo egoitza horien menpeko erakundearen esku geratu ziren udal titularitatea duten adinduen zentro ugari.

ALDAKETA, BERME GUZTIEKIN

Gauzak horrela, gobernuko ordezkarien esanetan, «legeak bete ahal izateko, ezinbestekoa da egoitzaren kudeaketa Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku uztea, eta hori, onartu berri den hitzarmenak ahalbidetuko du». Eskualdaketa, gainera, egoitzaren elementu guztiekin gauzatuko da: pertsonala, materiala eta kontratu administratiboen eta ondarearen subrogazioa.

Olatz Peon alkateak berretsi zuen eskualdaketa «berme guztiekin» gauzatuko dela. Hala ere, erabiltzaileak, langileak eta zerbitzua ez dira aldatuko, eta egun bezala mantenduko dira. «Kudeaketa organoa da aldatzen den bakarra. Bestela, era berean jarraituko du denak, eta hala dago jasota hitzarmenean».

Behin udalak hitzarmena onartuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak tramiteekin jarraituko du. Diputatuen Kontseiluak eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu ostean, hitzarmen hori izenpetuko da. Bizpahiru hilabete barru aurreikusten da ofizialki gauzatzea.

Gipuzkoako udalak 3 urteko plangintza eta egutegi baten baitan ari dira Kabia Foru Erakundearen txertatzen. Hori dela eta, dagoeneko 11 zentro dira bertan sartuta daudenak eta tartean da Villabonako egoitza ere. Horiei batuko zaie apiriletan, Iurreamendikoa. Ondorioz, guztira 17 egoitza izango dira Kabia Foru Erakundearen.

OPOSIZIOA

EH Bildu abstenitu egin zen eta Lore Agirrek azaldu duenez, hitzarmenarekin arazorik ez badute ere, langileen lan baldintzentan jarri dute azpimarra. «Aldaketak aldaketa, gobernuaren esanetan, baldintza berdinekin jarraituko dute langileek. Baldintza horiek, ordea, epe luze baterako lotzea nahi genuen», esan du.

Inauterietako haur danborradako entseguak

TOLOSA // Inauterietako haur danborrada martxoaren 2an izango da. Aurretik, baina, hainbat entsegu izango dira. Kosakek, hilaren 26an, eta otsailaren 2an, 9an eta 16an entseatuko dute, Musika Eskolan, 15:30ean. Danborradako parte hartzaileen entsegu orokorra, berriz, otsailaren 24ean izango da, 11:00etan, Trianguloan.

Hilabeteen bi aldiz egongo da zuhaitz saltzailea azokan

TOLOSA // Hilaren 12an, Ataungo Justo Dorronsoro zuhaitz saltzailea Tolosako Azokara gerturatu zen. Gainerako eskaintzaz harago Atari kalean kokatu zen, baso espezieak nahiz fruitu-zuhaitzak eskainiz. Larunbat honetan ere, hilak 26, bertan izango da, zuhaitzak saldu, azalpenak eman eta erosleei laguntzeko. Gainera, otsailaren 9an Zuhaitz Azoka Berezia ospatuko da Trianguloa plazan.

Emakumeentzako elektrizitate tailerra, kultur etxean

TOLOSA // Ana Yurd elkarteak antolatuta, Kutxa Fundazioaren laguntzarekin, asteazkenean antolatzen dute elektrizitate tailerra Tolosako kultur etxean. Gaur, saio berri baten txanda izango da 17:30etik 19:30ak bitarte. Izena eman nahi duenak, ixtin@gmail.com helbidera idatzi edo 622 412 266 telefono zenbakira deitu dezake.

Oargi Mendi Elkartearekin, Urbasara, igandean

TOLOSA // Oargi Mendi Elkartek irteera antolatu du Urbasara, igandean. 08:00etan aterako dira Tolosatik, eta 5 edo 6 orduko ibilaldia izango da. Urbasako errepidea irekita egonez gero, autoz igoko dira lehen aparkalekura; bestela, oinez abiatuko dira behetik. Basoan zehar egingo duten ibilaldia eguraldiaren eta elurraren arabera erabakiko da, eta posible bada, Bargagain gailurrera igotzeko asmoa dute. Izena emateko, oargimendi@gmail.com helbidera idatzi edo 688 698 642 telefono zenbakira deitu behar da.



IBARRAKO ETA IRURAKO IKASTOLEK ONDORENGO LAN ESKAINTZA ZABALTZEN DUTE

- Mantenimentuko langilea, lan jardueraren % 35ean, ordutegi malguarekin.
- Ezinbestekoa euskara jakitea.

Curriculumak emailaz bidali behar dira curriculumak@uzturpe.eus helbidera urtarrilaren 30a baino lehen.

Giza baliabide falta salatu dute Asuncion klinikako langileek

Urte osoko arazoa dena, negu garai honetan «larriagotu» egiten dela azaldu dute; lanerako jende gehiago eskatu arren, zuzendaritzatik ezezkoa jaso dute

Irati Saizar Artola Tolosa

Neguko garai honetan, gripea dela eta, ospitaleetan gaixo gehiago egon ohi da. Horixe gertatzen da, egun, Asuncion klinikan ere. Asuncioneko LABeko ordezkariak eta hainbat langilek giza baliabide falta salatu dute.

Ez da oraingo arazoa, urte guztia daramatela horrela azaldu du Ainhoa Ortizek, Asuncion klinikako LABeko enpresa batzordeko kideak. Azaldu duenez, «gripea dela eta, sasoi honetan beti daukagu lan karga handiagoa, eta eskatu arren ez dizkigute beharrezko baliabideak jartzen».

Pasa den asteburuko adibidea jarri du: «Oso jende gutxik egin dugu lan, eta horrek, estresa ekartzen du. Ezin izan diegu merezi zuten bezalako arreta eman». Behar bezala lan egiteko jende gehiagoren beharra izango zutela aurreikusi zuten. Eskatu ere egin zuten, baina «Montoia jaunak ezezkoa eman zuen».

Profesionaltasun osoz lan egitea gustatzen zaiela azaldu du Ortizek, baina pertsonal faltagatik «ezinezkoa» zaiela argitu du. Gaixo eta haien senideei ahal duten guztia egiten ari direla esan



Asuncioneko langileek behin baino gehiagotan salatu dute baliabide falta, irudian duela hilabete batzuk jarritako pankarta. I.U.

nahi diete, ahalik eta arreta egokiena eskaintzeko: «Dauzkagun baliabideek, ordea, mugatu egiten gaituzte, eta frustrazio hori ez dugu ez guk, ez Tolosaldeak, ez inork merezi».

Inguruko beste ospitaleekin alderatuta, pertsona bakoitzeko «askoz ere diru gutxiago» gasta-

tzen dutela seguru dago Ortiz, pertsonal faltaz gain, material falta ere badute eta.

Urte osoa prekarietatean daramatela salatu du Ortizek, eta lanean behin-behinean dauden gazteak izan ditu gogoan: «Fin-ko gaudenok prekarietatean lan egiten badugu, jende gazte guzti

horiek baldintza okerragoak dituzte, eta hori ere salatu egin nahi dugu».

Beraz, klinikako zuzendaritzari eskatu nahi die «pazienteari eskainitako arreta eta zerbitzuak hoberenak izan daitezen, behar diren giza baliabideak ezar ditzala».

Astunera irteera antolatu dute Ibin Kirol Klubekoek

BERROBI // Otsailaren 9 eta 10ean Astunera eskiatzera joateko irteera antolatu du Berrobiko Ibin Kirol Klubak. Irteera ordua, 5:45ean izango dute eta hurrengo eguneko 19:00etarako zehaztu dute itzulera. Eskiatzen ez dakienarentzat ere izango da lekurik, ikastaroa jasoko baitute lehen egunean. Guztira, 147 euro ordaindu beharko dituzte eta prezioak barne hartu ditu bidaia, 2 eguneko forfaita, egun bateko ikastaroa, eskien alokairua, afaria, aterpetxea, gosaria eta aseguruia. 18 urtez azpikoek arduradun batekin joan beharko dute. Izena emateko azken eguna urtarrilak 31 izango da eta www.berrobibizia.eus webgunean eman behar da.

M8-ko greba feminista antolatzeko batzar irekia, gaur

IBARRA // Martxoaren 8a dela eta emakumeei dei egin diete greba feminista Ibarrian antolatzeko. Horretarako, batzar irekia egingo dute gaur, 19:00etan hasita, Txontxon. Kapitalismo heteropatriarkalak zapaldutako emakume guztiei luzatu diete gonbidapena.

Sokagirakoen esku, azken ostiraleko mobilizazioa

IBARRA // Ostiralean, hilaren 25ean, hilabeteko azken ostirala izango da, eta eskualdeko herrietan mobilizazioak egingo dira presoen eskubideen alde. Ibarrian, urritik hona, eragile eta talde desberdinek antolatzen dute txandaka, eta datorren hau, sokatira taldekoei tokatu zaie antolatzea. Ibarriko sarreran elkartuko dira 19:30ean. Aurretik eginak dituzte Maite Aranalderen lagunek, herriko preso eta iheslari ohiek, Alurr dantza taldeak eta Hauspoa elkarteak.

Frontenis txapelketan apuntatzeko azken eguna, otsailaren 2a

BERASTEGI // Martxoan ospatzen dituzten Gazte Festetan jokatzen dituzte fronteniseko finalak. Txapelketan izena emateko aukera zabalik dago Urepele Elkartean, otsailaren 2a arte.

Ostiralean abiatuko dute Kultur Astea Uzturpeko ikastolakoek

I. Saizar Artola Ibarra

Otsailaren 3ra bitarte Kultur Astea antolatu dute Ibarriko Uzturpe ikastolakoek.

Aste bakarra beharrean, bi asteburu hartuko dituzte kultur ekitaldiek.

ALURREN EMANALDIA

Ostiral iluntzean izango da lehen emanaldia, Belabieta kiroldegian. Alurr dantza taldekoek *Jira-bira Euskal Herria* ikuskizuna eskainiko dute. Ikasturtea hasi zenetik prestatzen aritu dira eta tradizio eta euskal kulturaren ukituak izango dituela

aurreratu dute. Euskal Herriko dantza esanguratsuenak oinarri hartuta, errai eta kultura biziberrituko dutela esan dute. Sarre-ra doakoa izango da.

Ia sarrerarik geratzen ez den ikuskizun bat ere egongo da ikusgai Otsailak 1ean, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen *Musua* ikuskizuna eskainiko dute kiroldegian, 18:30etik aurrera.

Gelditzen diren sarrera apurak honako lekuetan eskura daitezke: Zubiaurre taberna, Goxobi gozoki denda, Makiuren okindegia eta Azkue auzoan dauden Gaztezulo lokalean.

EGITARAUA

Urtarrilak 25, ostirala

20:00. Alurr taldearen *Jira-bira Euskal Herria*, kiroldegian.

Urtarrilak 26, larunbata

15:30-18:00. Haur festa, puzgarriak, kiroldegian.

18:00. Txokolate jatea, plazan.

Urtarrilak 28, astelehena

17:30. Hitzaldia kultur etxean Antonio Ortuñoren eskutik: *El autocontrol y la tolerancia a la frustración de nuestros hijos e hijas*. Hitzaldia gaztelaraz izango da.

Urtarrilak 30, asteazkena

18:30. Loatzon musika eskolako ikasleek emanaldia, kultur etxean.

Urtarrilak 31, osteguna

17:00-18:15. Yoga tailerra Leire Jauregiren eskutik LH1 eta LH5 arteko ikasle eta gurasoekin.

Otsailak 1, ostirala

18:30. Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Musua* emanaldia, kiroldegian.

Otsailak 3, igandea

Mendiirteera.



Anoetako Herri Ikastolaren eraikina Hernialdera joateko bidetik ikusita. Parez pare, eraikin zaharrari erantsi dioten zatia. J.M.

Anoetako ikastetxeak mende erdia bete du eta ikasturte honetan urteurrena ospatzeko ekitaldiak egingo ditu; lehendabizikoa, ostiral honetan.

Herri Ikastolak 50 urte

Jon Miranda Anoeta

Mende erdi hone-
tako ibilbide
oparoa festa gi-
roan ospatzeko
asmoa du Anoetako Herri Ikastolak. Itziar Lazkano zuzendariaren esanetan, «Anoetako herriaren ezaugarri den auzolana azpimarratu eta ikastolako komunitatearekin bezala, herriko eragile guztiekin harremanetan jarri gara, denon artean ikastolak merezi duen ospakizun handi eta parte hartzailea egiteko».

Guraso kooperatiba da ikastola eta kudeaketa batzordean zehaztu dituzte urteurreneko ospakizunekin bete nahi dituzten helburuak: «Argi geneukan ez genuela, soilik, ekintza bakar bat izatea nahi, ikasturtean zehar, urteurrenak presentzia edukitzea nahi genuen». Zuzendariarekin batera, kudeaketa batzordeko guraso batek, guraso ohi batek, bi ikasle ohik eta gaur egungo guraso batek osatu dute 50. urteurrena antolatatzeko lantaldea. «Guk diseinatu ditugu ekitaldiak, baina gero, borondatez lanean arituko da jende asko ekintza horiek aurrera atera ahal izateko», esan du Lazkanok.

«Beste batzuk bere garaian lan

egin dutelako eta ikastolaren alde aritu direlako gaude gu hemen. Komunitateko kide izan diren guzti horiei aitortza egin eta eskerrak emateko baliatu nahi dugu urteurrena». Horretarako data jarria dute: otsailaren 9a. Ikastolako ikasle, guraso, irakasle eta langile izan direnei esker ona adierazteko ekitaldia egingo dute iluntze partean eta gero aitortza afaria izango da. Urtarrilaren 30era arte ikastolan bertan, edo bestela, Arkupe, Itzuli eta Laia tabernetan erosi ahal izango dira txartelak, 20 euroan. Izen ematen duen jendearen arabera, herriko frontoian edo kiroldegian egingo dute aitortza afaria eta antolatzaileek iragarri dutenez, «sorpresatxoak» ere izango dira afalostean.

Ikastola herrian txertatuta dagoen ikastetxea dela uste du Lazkanok eta horregatik, 50. urtemuga, herriko eragileekin ere ospatu nahi dute. «Herrigintza oso presente dago gurean, ikastolak komunitateari zerbitzua eskaintzen diola iruditzen zaigu eta gure ikasketa plangintzan islatuta dago hori. Ezinbestean herriarekin eta herriko eragileekin ospatu behar genuen urteurrena». Maiatzaren 4an, beraz, urtemugara batuko dira musika eskola, dantza talde, kirol elkarte eta kul-

tura mailan herrian lanean ari diren eragileak eta elkarlanean, «egun handi bat» antolatuko dute.

Urteurreneko ekitaldiak borbiltzeko, ikasturte amaieran egin ohi duten ikastolaren eguna modu berezian antolatuko dute. Lazkanok azpimarratu duenez, «ikastolako komunitatea gaur egun osatzen dugunok egingo dugu festa berezia, barrura begira». Ikasturtean zehar, gainera, 50 urte hauek biltzen dituen infografia bat aterako dute eta ikastolaren materiala jarriko dute salgai. Datorren ikasturteari begira, mende Erdiko historia eta aurten egingo dituen ospakizunak bilduko dituen liburua kaleratuko dute.

ERAIKIN BERRIA DU IKASTOLAK

Aipatutako hiru hitzorduekin batera, urteurreneko ospakizunei hasiera emateko ekitaldia ostiral honetan egingo dute, 16:00etatik aurrera. Orain arteko eraikinari erantsi dioten zati berriaren inaugurazio ekitaldia egingo dute. Nahiz eta lanak urrian amaitu ziren eta umeak bertan ari diren, atzeratu egin nahi izan dute ekitaldia, urteurreneko ospakizunekin bat egin dezan.

Behar ezberdinei erantzunez ekin diete ikastolako eraikinen

eraldaketari. Eraikina bera, neurri handi batean, «zaharkituta» dagoela aipatu du zuzendariak eta ikasle kopuruak gora egin izana ere izan da obrari ekiteko beste arrazoietakoa bat. Bi eta hamasei urte bitarteko 400 ikasle eta 32 irakasle aritzen dira gaur egun Anoetako Herri Ikastolan, eta aurtengo ikasturtean, lehen aldiz, DBH osoa bikoiztua dute.

Ikastolan, pedagogia aldaketa bat ere eman dute azkeneko urteetan eta lan egiteko modu berriak nagusitzen joan dira pixkanaka. «Konfiantzaren pedagogia duela hiru urte ezagutu genuen eta etapa ezberdinetako irakasleok formazio saioak jaso ditugu. Iruditzen zitzaigun metodologian emandako urratsek, lotura zuzena behar zutela izan espazioaren eraldaketarekin». Guzti horren emaitza da, etzi inauguratuko duten eraikina. Aurrekoari itsatsita dagoen zatian, bi urtetik LHko 4. mailara bitarteko ikasleentzako espazioak egokitu dituzte.

«Hasiera bat baino ez da izan», esan du Lazkanok, «Lehen Hezkuntzako bosgarren mailatik aurrerakoentzat espazio komunak egokitu ditugu, baina, oraingoz ikasgeletan jarraituko dute. Gurea ikastola txikia da, eta gure ahalmen ekonomikoak lehen

fase hau gauzatzea ekarri du. Hala ere, guk epe luzerako proiektua prestatu dugu eta etorkizunean, gastu honi buelta ematen diogunean, bigarren faseari ekingo diogu, LHko eta DBHko gainerako ikasgelak egokituz». 1,2 milioi euro inguruko inbertsioa egin dute lehen fase honetan.

«Komunitateko kide izan diren guzti horiei aitortza egin eta eskerrak emateko baliatu nahi dugu»

«Metodologian emandako urratsek lotura zuzena behar dute izan espazioaren eraldaketarekin»

ITZIAR LAZKANO
HERRI IKASTOLAKO ZUZENDARIA

«Herrian dagoen ikastetxe bakarra da ikastola eta horregatik diogu herri eskola dela. Ikasleko kobratzen diren kuotak oso baxuak dira, ikasle denek bertan lekua izatea nahi dugulako eta iruditzen zitzaigun ezin genituela gurasoak kargatu amesten genuen ikastola egin ahal izateko. Horregatik beste diru iturri batzuen bila jo genuen», esan du Lazkanok. Bederatzi urterako mailegua eskatu du Anoetako Herri Ikastolak inbertsioari aurre egiteko eta Eusko Jaurlaritzak emandako diru laguntzari esker, gastuaren heren bat estali ahal izango du. Beste heren bat Anoetako Udalak jarriko du.

Udalarentzat esker hitzak baino ez ditu ikastolako zuzendariak: «Une oro borondatea eta laguntza eskaini digute eta guk ezingo genuke aurrera egin haien laguntza gabe. Poza eta indarra ematen digu horrek. Udalak sinesten du ikastolan, badaki herri proiektu bat dela eta udal taldeak ulertzen du ikastolan inbertitzea, herrian inbertitzea dela». Hain zuzen, eraikin berria egiteko, 2008tik aterpeak okupatzen zuten tokia baliatu dute eta babesleku gabe geratu dira ikasleak patio orduan, baita gurasoak ere ume bila doazenean. Udalak, 2019ko aurrekontuan, aterpe berria egiteko diru sail bat gorde du. «Beste behin ere, udalaren esku zabaltasuna eskertu behar dugu».

Ikastolako eraikin berria egiteko obra lagundu duten erakundeetako ordezkariak izango dira ostiraleko inaugurazioan. Protokoloa bete ondoren, ikasleak egingo dituzte gida lanak eta lan egiteko modu berriak azalduko dizkiete bertaratutakoei.

Liburutegia ikasketa gela bezala erabili ahal izango dute ikasleek

Astelehenetik igandera 08:00etatik 00:00etara erabili ahal izango da; ikasleek udaletxean izena eman beharko dute

E. Maiz Amezketak

Amezketako Udalak, 18 urtetik gorako amezketar ikasle guztiei, kultur etxeko bigarren solairuan dagoen liburutegiaren espazioa ikasketa gela bezala erabiltzeko aukera zabaldu nahi die.

Udala, azken hilabeteetan, kultur etxeko zenbait espazio eta zerbitzu herrira zabaltzeko aha-leginean ari da. Liburutegia, ikasketa gela bezala erabiltzeko aukera asteko egun guztietan izango da, astelehenetik igandera, 08:00etatik, 00:00etara. Erabiltzaile bakoitzari giltza intelijentea entregatuko dio udalak, eta erabiltzaileak nahieran erabiltzeko espazioa izango du, beti ere, ordutegiaren barruan.

Zerbitzua doan izan da. Erabiltzaile izateko, orde, udaletxean izena eman behar da inprimaki bat betez eta araudi txiki bat betetzeko konpromisoa sinatuz. Ikasleentzako onuragarria izango delakoan dago udala, eta zerbitzuari buruzko edozein zalantza argitzeko udaletxera jo beharko dute.

Euskara Taldeak gaur bilera egingo du udaletxean

IKAZTEGIETA // Ikaztegieta Euskara Taldeak Euskaraldiaren ostean lehen bilera egingo du, gaur, 19:30ean, udaletxean. Herriko euskararen egoerak kezka sortzen du, eta herrira begira lanean hasteko bilera izango da.

Bi lanpostu eskaintzen ditu Alegiako Udalak

ALEGIA // Alegiako Udalak administrari laguntzaile postu bat eta zerbitzuetako zeregin anitzetako beste bat eskaintzen ditu. Udalaren Lan Eskaintza Publikoan izena emateko azken eguna otsailaren 14a izango da. Informazio gehiago: alegia.eus-en.

‘Bakarka’ diskoa aurkeztuko du Ruper Ordorikak, Alegian

Alegiako Udalak prest du Neguko Kultur Egitaraua, eta ikasleen erakusketak eman dio hasiera. Ostiraleko Ordorikaren kontzertuak emango dio jarraipena

Eneritz Maiz Etxarri Alegia

Alegiako Udalak gogotsu hasi du urtea, eta lehen lau hilabeteetarako kultur egitaraua aurkeztu du. Hasteko, San Juan eskolako ikasleek Kazakhstani buruzko erakusketa egin dute. Kultur etxean jarri dute herritarrek bisitatu dezaten.

Indartsu hasteko, ostiralean Ruper Ordorika oñatiarraren doinuek hartuko dute Elizpe zinema. *Bakarka* disko berriarekin etorriko da Alegiara, eta hamabi abestiz osatutako diskoa da bere azken lana. Bere ibilbideko hamabi abesti dira, asko entzunak, baina lehen aldiz gitarra hutssez abestuak. Sarrerak 12 euroan daude salgai kultur etxean. Kontzertua 22:00etan hasiko da.

Otsailean nabarmentzekoetako hitzorduetako bat Alberto Iñurrategi mendizalearen bisita izango da. Hamalau zortzimila-koak oxigenorik gabe igo dituen aretxabaletarrak *Porrotaren alde* hitzaldi-proiektzioa eskainiko du otsailaren 12an, Elizpe zinemaren.

Honen aurretik, orde, Santa Ageda bezperan ez du hutsik egingo Txintxarri abesbatzak. Makilak eskuan hartu, eta 19:00etatik aurrera kantuan ibiliko dira.

Gainera, umeek hilabetero izango dute ipuin kontaketa saio bat Baleube taldearen eskutik. Haur eta helduentzako antzerkiek ere izango dute tarte. Zahargiardoan eztarria bustitzeko aukera ere izango da, eta baita dantzaz gozatzeko ere. Bi urtetik behin bizitzen den euskararen aldeko Korrika apirilaren 13an 05:15ean sartuko da Alegiara.

XOXOTERA IRTEERA, IGANDEAN

Alegiako Mendi Asanbladak urteko lehen mendi irteera egingo du Xoxotera, igandean. Izarraitz inguruan ibiliko dira, eta 09:00etan Tonto kaletik abiatuko dira autoetan. Attolara joan, eta bertatik egingo dute Xoxotera bidea. Izena eman nahi duenak kultur etxean edo alegia-komendiasanblada@gmail.com helbidera idatzita eman dezake. Eguerdian etxera itzuliko dira.



San Juan eskolako ikasleek osatutako erakusketa jarri dute kultur etxean; otsailaren 1a bitarte egongo da. E. MAIZ

NEGUKO KULTUR EGITARAUA

Urtarrilak 21etik otsailak 1era

San Juan eskolako ikasleek egindako Kazakhstan herrialdeari buruzko erakusketa, kultur etxean.

Urtarrilak 25, ostirala

22:00. Ruper Ordorikaren kontzertua, Elizpe zinemaren.

Urtarrilak 27, igandea

09:00. Mendi irteera egingo dute Xoxotera (Izarraitz). Autoetan egingo da joan-etorria eta bazkal ordu-rako buelta.

Urtarrilak 31, osteguna

17:00. Ipuin kontaketa Baleube taldearen eskutik, liburutegian.

Otsailak 4, astelehena

19:00. Txintxarri Abesbatza kantari Santa Ageda bezperan, kaleetan barrena.

Otsailak 12, asteartea

19:00. Alberto Iñurrategiren

Porrotaren alde proiektzioa, Elizpe zinemaren.

Otsailak 21, osteguna

17:00. Ipuin kontaketa: Baleube taldea liburutegian.

Otsailak 22, ostirala

22:00. *Aire hemendik!* antzezlan, Intujai teatroren eskutik, Elizpe zinemaren.

Martxoak 3, igandea

Inauterietako zahagiardoa, plazan.

Martxoak 8, ostirala

Emakumeen Nazioarteko Eguna.

Martxoak 11 eta 25, eta apirilaren 5 eta 8

16:00. Haurren dantza tailerra, HH3 eta HH4ko ikasleentzat, kultur etxean.

Martxoak 23, larunbata

17:00. Mari eta gailera fabrikahau-

rrentzako antzezlan, Eidabe taldearen eskutik, Elizpe zinemaren.

Martxoak 28, osteguna

17:00. Ipuin kontaketa Baleube taldearekin, liburutegian.

Martxoak 31, igandea

Mendi irteera egingo dute Oamen-dira (Zerain).

Apirilak 5, ostirala

22:00. *Oinatzak* ikuskizunaren estreinaldia, Sutarri dantza taldearen eskutik, Elizpe zinemaren.

Apirilak 12, ostirala

17:00. Dantza ikastaro haurren emanaldia, kultur etxean.

Apirilak 13, larunbata

05:15. Korrika 21 iritsiko da Alegiara Tolosa aldetik.

Apirilak 21, igandea

Pazko eguneko zahagiardoa, plazan.

Herriko etxebizitzaren arazoari irtenbidea aurkitu nahian

Ikaztegieta-ko Gazte Taldeak 'Etxebizitza Bizimodu' hitzaldi zikloa antolatu du, herrian bizi duten egoeraren aurrean aukera ezberdinez informatzeko

Eneritz Maiz Etxarri
Ikaztegieta

Hilabetero biltzen da Ikaztegieta-ko Gazte Taldea, eta hilabetero ez bada, bi hilean behin etxebizitzaren gaia ateratzen zen taldean. Kezka horri erantzunez, *Etxebizitza Bizimodu* hitzaldi zikloa antolatu dute.

Irailean heldu zioten gaiari lauzpabost lagunekoa taldetxo osatuz. Alba Garmendia da kideetako bat eta argi azaldu du: «Kezka dago. Gazteak ez dira herrian geratzen, eta kanpora doaz bizitzera».

Nahi gabe ere gazteen ikuspegi eman diote hitzaldi zikloari, baina interesa duen edonori zuzendutako hitzaldi zikloa dela argitu dute. Ugaitz Mozo gazteak azaldu duenez, «elkarren artean nahiko ezberdinak diren hiru hitzaldi antolatu ditugu, eta nahiko genukeena da hiru hitzaldi hauek informatzioa jasotzea. Gero, laugarren saioan gure ideiak elkarbanatuko genituzke, eta ea arazoari irtenbidea bilatzeko aukerarik dugun».

Lehena, pasa den ostiralean, Zeraingo alokairu sozialaren ingurukoa izan zen. Etzi, Oreretako etxebizitza komunalaren gaineko hitzaldia izango da. Oraindik martxan ez badago ere aurreratu ta dagoen eta parte hartze zabala izan duen proiektua dela adierazi du, Garmendiak. Azken hitzaldirako, berriz, Tolosaldeko Antolakuntza Komunalekoak gonbidatu



Zeraingo zinegotzi Junkera, alokairu sozialeko etxebizitzaren proiektuaz. E.M.

tu dituzte, eta Garmendiak gaineratu du: «Hauek etxebizitzatik haragoko proiektuaz hitz egitera etorriko zaizkigu. Bizimodu proiektu zabalago bat dute, ez bakarrik etxebizitzarena. Bost edo sei adar ezberdin lantzen dituzte, eta hori kontatzen dazoz».

Hitzaldi guzti horietan informazioa jaso ostean, *Eta Ikaztegieta zer?* galderari erantzuten saiatuko dira. Lau egun hauetan ez dute geratu nahi, eta udalarekin, gabe edota aurkitzen duten bidearekin Ikaztegieta dagoen etxebizitzaren arazoari irtenbide bat bilatzen ahaleginduko dira.

Hogeita hamar gaztetik gorako taldea da, eta jarraikotasun batez

hamabost bat biltzen dira. Mozok eta Garmendiak adierazi duteenez, aukera ezberdinen gainean hitz egin izan dute baina datuak falta zaizkie, edota legeak dituen mugak ez dituzte ezagutzen. Udal ordezkariekin ere egin dute lehen bilera, udalak zenbat etxe edota lur izango lituzkeen jakiteko. Erantzunaren zain daudela adierazi dute. «Ideiak ditugu, baina ez dakigu zein aukera egon daitezkeen».

Ez dela gazteen arazoa bakarrik gogorarazi nahi izan dute, ordea, eta besteak beste, kontuan izan behar dela etxebizitzak egiterako garaian eragina duela herriko euskararen erabileran edota eto-

'ETXEBIZITZA BIZIMODU'

Urtarrilak 25, ostirala

19:00. Oreretako etxebizitza komunitarioa izango da hizketarako gaia, udaletxeko areto nagusian.

Otsailak 15, ostirala

19:00. Tolosaldeko Antolakuntza Komunaleko kideak izango dira beraien esperientzia kontatzen, udaletxeko areto nagusian.

Otsailak 22, ostirala

19:00. *Eta Ikaztegieta zer?* herri-tarrei zuzenduta bilera irekia izango da, udaletxeko areto nagusian.

rritakoek herrian egin dezaketen bizitzak.

ZERAINGO ALOKAIRU SOZIALA

Zerain herrian ere antzeko egoera bizi zuten, eta duela bi urte hasi ziren aukera ezberdinak aztertzen, 23 gaztek herritik alde egin ostean. Gazte eta adinekoentzako alokairuko zortzi etxebizitza egingo dituzte, epe laburrean. Eusko Jaurlaritzatik lortu duten diru laguntzari esker aterako dute proiektua aurrera.

Bost urterako alokairua izango da, eta hileko kuota soldataren arabera izango dute. 35 urte-tik beherakoentzat izango da, eta Etxebiden izena emanda egon behar dute. Adinekoekin ere uztartuko dutenez proiektua, 70 urte-tik gorakoek ere izena eman ahal izango dute.

Frontenis Txapelketa mistoan izena emateko aukera

Gazte Taldeak II. Frontenis Txapelketa Mistoa antolatu du; urtarrilaren 27a izango da izena emateko azken eguna

E.M. Ikaztegieta

Iazko arrakasta ikusita, Ikaztegieta-ko Gazte Taldeak aurrean ere frontenis txapelketa mistoa antolatzea erabaki du.

Ikaztegieta-ko II. Frontenis Txapelketa Mistoan izena emateko epea urtarrilaren 27an bukatuko da. 678 04 69 70 mugikor zenbakia jarri dute eskura, deituz edo mezua idatziz izena emateko.

Partidak larunbat goizetan jokatuko direla jakinarazi dute. Hala ere, eta garaiz abisatuz gero, egunez aldatzeko aukera egongo da.

OTSAILTIK APIRILERA

Egunei dagokienez, txapelketa otsailean hasiko dela iragarri dute, eta apirilaren 13an amaituko dela.

Horrekin batera, egun horretan ospatuko dutela Ikaztegieta-ko II. Gazte Eguna aurreratu dute.

Bestalde, txapelketak iazko sistema antzekoa izango du, eta hau aurrerago zehaztuko dute; izen emate epea amaitzen denean.

Ondo pasatzera joateko deia egin dute, eta lehiakortasuna etxean uzteko eskatu dute.

Era berean, ohartarazi dute Gazte Taldea ez dela arduratuko txapelketan zehar gertatu daitezkeen ezbeharrez.

Hilberriak eta urteurrenak



Angeli Urtaran Mendizabal

-Goian bego-

Atzo hil zen, 75 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren

Anai-arrebak: Soco, Sole eta Jose Mari Aztiria (†); ilobak: Josu, Maialen eta Andoni, Sara, Irene eta bere lagun mina Usua; gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte GAUR ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, ANDRA MARI ZERURATZEAREN parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik mila esker.

Helbidea: Secundino Esnaola 12 ZUMARRAGAN, 2019ko urtarrilaren 23an OHARRA: Hilbeila Zumarragako Beilatokian egongo da.

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 64mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Bide onetik doa eskubaloia talde nagusia

Denboraldi erdia igaro denean, sailkapeneko bigarren postuan dago Tolosa CF Eskubaloia taldea

Imanol Garcia Landa Tolosa

Tolosa CF Eskubaloia sendo ari da aurtengo denboraldian, lehen maila nazionalean. 30 jardunal-dietatik 16 jokatu ondoren, bigarren daude sailkapenean, 26 punturekin, lehenengotik bi puntura eta hirugarrenari hiru puntuko tarte ateratzen diotela. «Balantze ona» egiten dute taldekoek, Estanis Arsuaga kapitainaren ahotik: «Taldea bezala denboraldi hasierako helburua da ahalik eta goren geratzea. Denboraldi erdia egin dugu eta bigarrenak gaude, beraz, balantzea ona da».

Azken jardunaldia bereziki ona izan da Tolosako asmoetarako. Lehen postuan doan Anaitasunak galdu egin du, eta hirugarren doan Casablancak eta laugarren doan Ereintzak berdindu egin dute. Asteburu honetan, gainera, Casablancaren aurka izango dute partida. Arsuagak azaldu duenez, «denboraldiko partida garrantzitsuenetako bat izango da, eta etxean jokatu dugu. Lehen itzuliko partidari, beraien etxean jokatu genuena, galdu egin genuen. Ea asteburu honetakoa irabazi eta tarte gehiago ateratzen diogun».

Aurreko denboraldiaren alde-



Tolosa CF Eskubaloia taldekoen eraso bat, partida batean. IMANOL ESNAOLA

ratuta, antzeko egoeran daudela dio Arsuagak. Postuen aldetik pixka bat gorago, aurrekoan hirugarren edo laugarren joango zirelako, baina egoera antzekoa dela dio kapitainak. «Lehenengo postuetan egotea pentsatzen genuen, baina partidak jokatu egin behar dira», esan du Arsuagak. Orain bi denboraldi zilarrezko mailan izan ziren, eta aurrekoan berriro lehen maila nazionalean aritu ziren. «Berrirori ere mailara egokitu behar ginen, eta jaisterakoan taldean ere aldaketak izan ziren. Zentzu horretan, joko aldetik, elkarrekin errazago jokatzen ari gara denboraldi honetan».

IGOERA FASEA JOKATZEA

Lehenengo helburua lehen bi postuetan geratzea da Tolosa CF Eskubaloientzat, igoera fasea jokatu ahal izateko. «Behin hori lortu ondoren, gero ikusiko dugu zein beste helburu jartzan dugun», esan du Arsuagak. Bere

mailan sei multzo daude, eta multzo bakoitzeko lehen bi sailkatuek jokatzen dute igoera fasea.

Lehen postu horietan geratzeko denboraldi hasieratik lan asko egin behar dela dio kapitainak. «Ari gara lanean, eta emaitzak lortzen ari gara, lan asko egin eta gero», esan du Arsuagak, eta aurrera begira dituzten data esanguratsuenak aipatu ditu: «Asteburu hau dugu, hasteko. Gero, inauterietako asteburuan bi partida etxean jokatzen ditugu, Ereintza eta Trapagaranen aurka. Gero martxoaren bukaeran Anaitasunaren aurka dugu, kanpoan».

Halere, partida guztiak garrantzitsuak direla dio, guztietan puntuak eskuratzeko. «Ezin gara erlaxatu, partidaren bat berdindu edo galduz gero, segituan gainera etortzen baitira atzetik datozenak. Egun txar bat baduzu eta beste taldeak gogo gehiago jartzan badu, ezustekoak izan daitezke».

«Egoera zein izango zen garbi ez egoteak bota zidan atzera»

IKER ORTIZ
ESKUBALOI JOKALARIA

I. Garcia Landa Anoeta

Tolosa CF Eskubaloia taldeko Iker Ortizek (Anoeta, 1997) Aso-bal ligako Benidorm taldean proba bat egin du berriki. Ortizek berak erabaki zuen proba bertan behera utzi eta bueltatzea.

Nola sortu zen proba egitearena?

Nire postuan bi jokalarik zituzten, eta horietako batekin arazoak zituzten, epaiketa kontuekin zebiltzan, kontrakoa atera zitzairen eta jokalarik hori gabe geratu ziren. Beraz, jokalarik bat behar zuten. Denboraldi-aurrean hemen jokatu zuten Benidormekoek; hori ikusiko ninduten, eta hortik aterako zen aukera.

Eta nola izan da esperientzia?

Berez bi asteko proba bat zen, baina astebete egin eta bueltan etorri nintzen. Entrenatzen oso gustura aritu nintzen, beste maila bateko intentsitatea dagoelako, azken finean lehen mailako talde bat da, eta Munduko Txapelketan dauden jokalariek ere badituzte, eta hori nabaritzen da. Baina, gero, sentsazioak ez ziren onak. Baloratu nuen ere hemen zer uzten nuen, eta ez du konpentsatzen. Gehienbat horregatik itzuli nintzen.

Kontratu profesionalik eskaini zizuten?

Niri esaten zidaten bigarren taldeko fitxa jarriko zidatela eta



J. ARTUTXA

gero aukerak izango nituela lehen taldean jokatzeke. Beraiei merkeena hori ateratzen zitzairen. Bigarren taldean eduki eta orduan ez zara profesionala, eta nik irabaziko nuen dirua gutxiago izango zen profesionala izanda baino.

Zuk erabaki zenuen, beraz, bueltatzea. Beraiek zerbait esan zizuten, hau da, pasa zenuen proba?

Ez zidaten ezer esan. Saiatu nintzen jakiten baiezkoa edo ezezkoa, baina ez zidaten argi esaten. Azkenean bi asteko proba bat zen, eta pentsatzen dut bukaerarako utziko zutela. Lortzen nuen informazioaren arabera, bigarren taldean sartzeko kontu hori zegoen, eta ez da berdina seguru lehen taldean egotea edo bigarrengoan aukerekin. Eta egoera zein izango zen garbi ez egoteak bota zidan atzera. Azkenean hemen dena uztea eta hara joatea jakin gabe nola egongo nintzen... sekulako aldaketa zen eta pentsatu nuen ez zuela merezi.

Jardunaldi borobila

Aulkitik
Sebas Osinalde
Tolosa CF

Tolosa CF-ko emakumeen talde guztiek irabazi dute, beraz, jardunaldi borobila izan dugu azkenekoa. Guztiei zoriondu nahi diet, eta eskertu niri eskaini dizkidelako garaipenak, nire urtebetetzea izan zelako ostiralean. Ohorezko infantil mailakoek kamiseta bat

oparitu didate, beraien argazkia- rekin eta sinatuta.

Infantil B taldekoek Ostadarrren kontra jokatuak partida ikusi nuen, partida polita, eta garaipen handia eskuratu zuten, 3-0ekoa lortuz. Gero jakin nuen Imanol Moyanoren kadete mailako taldeak irabazi zuela 0-1, eta lehen fasean partidarik galdu gabe bukatu dutela.

Erregional mailakoek Touring taldeari 1-0 irabazi zioten, eta gero partida polita eskaini zizuten Euskal Ligako taldekoek

Goierrri-Gorrikoen aurka. 2-0 irabazi zuten, eta Ainhoa Garikanok sartu zuen goletako bat, benetan ona da Ainhoa, eta Eider Tejeriak beste gol ikusgarri bat sartu zuen. Partida bukatzerakoa aldageletara joan ginen eta denon artean jan genituen bonba batzuk: jokalariek, entrenatzaileak eta Antxon Iglesiasek.

Ondoren, igandean, ohorezko kadete mailako taldeak Goierrriren aurka irabazi zuen, 2-0. Golak Elenek eta Balerdik sartu zituzten. Zumaian partida izan ge-



nuen eta Tolosak 1-2 irabazi zuen, ohorezko infantil mailan, partida polita batean.

Espero dut datorren astean ere emakumeen bost taldeek garai-

penekin jarraitzea eta guztiekituluak eskuratzeko. Zorte on Imanol Moyanori eta Jabi Martinezi.

Aupa Tolosa neskek!



ASTEAZKENA, 2019KO URTARRILAK 23
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoeta: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEAZKENA 23

AGENDA

Detaldiak

Anoeta. Korputz jaiak antolatzen bi-
lerra 18:00etan, udaletxean.
Tolosa. Galtzaundi Euskara Taldearen
Irakurle Taldea 19:00etan, kultur etxe-
an. *Maitalea* izango dute hizketagai.
Ibarra. Martxoaren 8ko greba antola-
tzeko bilera 19:00etan, Txontxon.
Ikaztegieta. Ikaztegieta Euskara
Taldea Euskaraldiaren ostean lehen
bilera egingo du, 19:30ean, udaletxe-
an, euskararen egoerak herrian sor-
tzen duen kezka harria.
Tolosa. *Irñauterik* ikus-entzu-
nezkoaren estreinaldia 20:00etan,
Leidor antzokian.

EGURALDIA

Iker Ibarluzea

Gaur. Egun osoan zehar za-
parradama dula eta ia
etengabeak botako ditu,
ekaitzak jo eta kazkabarra ere bota
dezakeelarik. Haizeak ipar-mende-
balde joko du, zakar gainera eta
tenperaturak hotzak izango dira, ma-
ximoak 5-6 gradutan joko dutelarik
goia. Elur-maila 600-700 metroan
kokatuko da, baina puntualki eta batez
ere, Tolosaldea ekialdean, beherago
egin dezake, goizaldean eta eguneko
azken orduetan batik bat.

Bihar. Negu beteko giroak ja-
rraipena izango du, baina euri
gutxiago botako du. Zapa-
rradarik handienak goizean eta arra-
tsaldeko lehen orduak arte espero
dira. Haizeak iparretik joko du, zakar
eta tenperaturak ez dira 5-6 graduta-

tik pasako eguneko erdiko orduetan.
Elurra 500 metroren bueltan egongo
da goizean.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza. Eskualdeko
berriak, Iker Ibarluzearekin eguraldia,
Yurre Ugarte Galtzaundi Irakurle Tal-
deko dinamizatzailea, Saioa Etxegia
Kale Kantoitik eta Oskar Tenarekin
artearen txokoa.
11:00-12:00. Eutsi goiari. Kirolak.
12:00-13:00. Entzuteko jaioak.
15:00. Playback Ataria. Adrianna
Gaultier Djaren musika saioa.
16:00-18:00. Zebrabidea.
18:00-20:00. Goizeko onena.
20:00. (H)ari naizela. Imanol Artolak,
Felixek, gidatutako bertso saioa.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosalde-
tik.
16:30. Ur eta Lur.
17:30/21:30. Gaurkoan Tolosalde-
tik.
22:00. 28 Klip.
22:30. Onein.
23:30. Gaurkoan Tolosalde-
tik.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunkoa. Ignacio Olarre-
aga Aranburu. Korreokalea, 2. Telefo-
no zenbakia: 943 67 0128.
TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz
Galarza, Amaroitz auzoa, 9. Telefono
zenbakia: 943 67 5118.

TOLOSALDEKO ATARIK ez du bere gain
hartzeko egunkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzukizunik.

Garagardoen inguruan gehiago jakiteko aukera

Villabonako Beertoki taldeak garagardo dastatzea antolatu du
ostiralerako; IV. Beertoki Garagardo Azokaren data ere
aurreratu dute, apirilaren 27an egingo dute, Villabonan

Erredakzioa Amasa-Villabona

Beertoki elkarteak lanean jarrai-
tzen du garagardoaren kultura
gizarteratzeko helburuz. Urtean
zehar hainbat hitzordu jartzen
ditu eta hurrengo, ostiralean
izango da, hilak 25.

20:00etatik aurrera Rbote ta-
bernari hainbat garagardo dasta-
tzeko aukera egongo da. Euskal
Herrian ere garagardo mota des-
berdinak egiten direla erakutsi
nahi dute dastatzearekin eta
horretarako bost garagardo mota
egongo dira aukeran; Brew&Roll-
Mamba, Sesma-Almost Krick,
Drunken Bros, Gora Craft Beer eta
Laugar-Txapela.

20 pertsonen hartu ahal izango



Pasa den apirilean egindako Beertoki Azokaren artxiboko irudia. I. GARCIA LANDA

dute parte, izena aurrez emanda.
5 garagardoen dastatzearen eta
afariaren truke 25 euro ordaindu
beharko dira. Bestalde, elkarteak

aurreratu du jada, noiz egingo du-
ten Beertoki Garagardo Azoka.
Laugarren edizioa apirilaren 27an
izango da, Villabonan bertan.

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

www.ataria.eus · 107.6 fm · 105.0 fm



1 ALBAOLA itsas kultur faktoria

Familiarentzako sarrera
(bi nagusi eta ume bat)

www.albaola.com
Pasai San Pedro • 943 39 24 26
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**



2 TXURI URDIN irristaketa libre

Bi lagunentzako bina sarrera

Anoeta pasealekua,
24 DONOSTIA
Tel.: 943 46 44 04
www.eltxuri.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

3 EKAINBERRI museoa

Bi lagunentzako sarrera bikoitza

www.ekainberri.com
ZESTOA 943 86 88 11
info@ekainberri.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

Parte hartzeko deitu **902-82 02 40** telefono zenbakira edo sartu **www.ataria.eus** webgunean • Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.